

## **FAKULTATEAREN OHIKO BATZARRAREN AKTA** **(2022ko irailaren 28a)**

### **Berlaratu diren eta ez diren kideak (IOaren 22.2 artikulua)**

#### **Dekanotza taldea**

1. Del Valle Loroño, Ana Irene – Dekanoa
2. Arlucea Ruiz, Esteban - Idazkaria
3. Doblaz Pozo, Patxi – Dekanordea
4. De la Peña Varona, Alberto- Dekanordea
5. Casado del Río, Miguel Ángel- Dekanordea
6. Ayestarán Varza, Alazne- Dekanordea

#### **Administrazio burua**

7. Asensio Espina, Kizitiñe

#### **IRI iraunkorra**

8. Davila Legeren, Andrés
9. Meso Ayerdi, Koldo
10. Lasaga Sanz, Rafael
11. Novo Arbona, Ainhoa
12. Ganzabal Learreta, María
13. Lavía Martínez, Cristina (*ezin etorria adierazi du*)
14. Antolín Iria, Enrique
15. Ispizua Uribarri, Marian (*ezin etorria adierazi du*)
16. Amurrio Vélez, Mila
17. Miguel Saez de Urabain, Ainara (*ezin etorria adierazi du*)
18. Pérez Da Silva, Jesús Ángel (*ezin etorria adierazi du*)
19. Apodaka Ostaiakoetxea, Eduardo
20. Camacho Markina, Idoia (*ezin etorria adierazi du*)
21. García Ureta, Irene
22. Usín Enales, Sandra
23. Blas Mendoza, Asier (*ez dago*)
24. Otero Gutiérrez, Beatriz
25. Beaskoetxea Gangoit, José M<sup>a</sup>
26. Martínez Herrero, M<sup>a</sup> José
27. Orueta Estívariz, Gorka
28. Mendiguren Galdospin, Terese (*ezin etorria adierazi du*)
29. Tellería Herrera, Imanol
30. Lazcano Brotons, Íñigo (*ez dago*)
31. Larrondo Ureta, Ainara

#### **Beste IRI**

32. Garai Artetxe, Estitxu
33. Iturbe Tolosa, Andoni

#### **AZP**

34. García Vázquez, M<sup>a</sup> José
35. Ocerin Beraza, Isabel
36. Kanpandegi Iturbe, Jon Ander
37. Laniella Fernández, Igor (*ezin etorria adierazi du*)
38. Arandia Urutiaga, Igone

#### **Ikasleak**

39. Rino Pardo, Celia
40. Figueroa Hernández, Agustina (*ez dago*)
41. Eriz Ávila, Lorea
42. González Cortes, Álvaro Alejandro (*ez dago*)
43. Lakuntza Bakaikoa, Mikel Adur (*ez dago*)
44. Apaolaza López, Naroa (*ez dago*)
45. Urizarbarrena Trueba, Nahia (*ez dago*)
46. Martínez de Albéniz Casales, Ainara (*ez dago*)
47. De la Torre Landera, Iraia (*ez dago*)

2022ko irailaren 28an (asteazkena), 13:00ak direnean, Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateko Batzarra bildu da bigarren deialdian, ohiko bilera egiteko. Dekano andrea izan da bileraren burua eta gai zerrendako puntu hauek landu dituzte:

#### **1. Aurreko batzarreko akta irakurtzea eta, hala badagokio, onestea**

Batzarrak aztertu ondoren, 2022ko maiatzaren 31ko akta onetsi da.

#### **2. Dekano andrearen txostena**

Txostenarekin hasteko, lehenengo mailako matrikula prozesu berria aurkeztu du: presentziala eta online. Ikasleen %63,4 inguruk matrikula presentzialki egin du. 552 ikasle sartu berri matrikulatu dira deialdietan. Ikasle horien %59,6 emakumeak dira, eta %53,4k gazteleraz ikastea aukeratu zuen.

Balorazio orokor gisa, gradu bikoitzen eskaria ona da, eta gauza bera gertatzen da beste gradu batzuetan. Beste batzuen kasuan, berriz, pandemiaren aurreko egoerarantz atzera egin dutela dirudi.

Masterren kasuan, matrikulazio tasak altuak diren arren, orokorrean behera egin dute. Beharbada, beharakada matrikula prozesuaren ondorio izan daiteke.

Azpimarratzekoa da lehenengo mailako ikasleei harrera egiteko ekitaldia online egin zela irailaren 12an. Gaztelerazko ekitaldian 250 ikasle konektatu ziren, eta euskarazkoan, berriz, 205. Era berean, ikasleen orientazio plana graduetakoa lehenengo mailako ikasleekin hasi da. Hurrengo bi mailekin laster egingo da.

Osterantzean, energia aurrezteko neurriek eragingo dituzte berrikuntza nagusiak aurten.

Espazioak hobetzeari dagokionez, 38. gelan egingo den obra atzeratu da. Edonola ere, gela prest egongo da bigarren lauhilekorako.

Halaber, jakinarazi du ikastegiaren prebentzio plana Eusko Jaurlaritzan erregistratu dela eta larrialdi simulakro bat egingo dela urrian.

Bukatzeo, plan estrategikoa. Prest dago eta hurrengo batzarrean aurkeztuko da, batzarrak aztertu eta onar dezan. Bukatzeko, azkeneko hilabetetan irakasle plaza lortu dutenak zoriondu ditu, eta bereziki, Bea Zabalondo batzarkide ohiari eskerrak eman dizkio, kolektiboa aldatu eta batzordeko postua utzi duelako. Halaber, ongietorria eman dio ondorengoari, Estitxu Garai irakasleari.

### **3. Onartzea eta izendatzea Partaidetza eta Komunitate Garapena Masterreko batzorde akademikoko kide berriak**

Idazkari akademiko jaunak adierazi du Gradu eta Graduondoko Ikasketen errektoreordearen 2019ko martxoaren 14ko ebazpenaren 3.2 artikulua arabera, masterretako batzorde akademiko guztiak batzarrak onartu behar dituela. Hori horrela, aipatutako masterreko batzorde akademikoko kideak aldatzeko proposamena onartzeko bozkatu da. Proposamena baiespenez onartu da, eta hauek dira kideak: Andere Ormazabal (masterreko zuzendaria eta burua) eta Izaro Gorostidi eta Imanol Tellería.

### **4. Garaiko Historia masterreko ikasketa plana aldatzea**

Idazkari akademikoak azpimarratu du aurreko puntuan aipatutako ebazpeneko 14.2 artikulua arabera, masterreko ikasketetan aldaketa garrantzitsuak egiteko beharrezkoa dela ikastegiak alde aurretik txosten bat egitea. Batzordeak, aldaketak aztertu ondoren, aldeko irizpena eman du.

### **5. Lekualdatze araudia doitzea**

Ikastegiko graduen eta gradu bikoitzen artean aldatzeko araudian hainbat baldintza ezartzen dira. Horietara hirugarren baldintza bat gehitzea proposatzen da: onartzen diren aldaketek ez dute gainditu behar xede den graduoko lehen mailan eskainitako plazen % 10. Baiespenez onartu da.

### **6. Gradu eta gradu bikoitzeko ikasketetan mugikortasunerako fakultatearen araudia**

Dekano andreak azaldu du horri buruzko ikastegiaren araudian hiru artikulua aldatzea proposatu dela. Eartikulan horri buruzko unibertsitatearen araudiari buruzko erreferentzia gehitu da; 11. artikuluan, beriz, helmugan ikasleek kalifikazioak akademikoki aitortzeko erabili beharreko sistema gehitu da, eta, azkenik, 12. artikuluan nazioarteko mugikortasun programetan parte hartzeko batez besteko nota igo da (6,75) eta SICUE programarako nota ezarri da (6).

Aldaketak bozkatu dira eta onartu dira, aldeko 20 botorekin eta kontrako 2 botorekin.

### **7. Azpiegiturak erabiltzeko baimena**

Bizkaia Aretoan honako espazio eskaera hauek bermatu dira:

- Fiscal Federalism and Territorial Inequalities kongresua egiteko, urriaren 27tik 29ra.
- "Conocimiento del suicidio en el mundo contemporáneo" izeneko aurkezpena egiteko, urriaren 3an.
- Ikerketa, Ekintza eta Garapen Komunitarioko Nazioarteko Jardunaldiak egiteko, 2023ko apirilaren 26tik 28ra.
- Ziberkazaritzako Nazioarteko XIV. Kongresua egiteko, azaroaren 21ean eta 22an.
- Ituna Jardunaldia XI. Kongresua egiteko, 2023ko martxoaren 14an.

### **8. Irakasle plazak**

Batzordeak Politika eta Administrazio Zientzia Saileko eskaera honen aldeko txostena eman du: 11. eranskina (LZ aldatzea) atxiki elebidun osotik agregatu elebidun osora (PAC8L2-D00110-5).

## 9. Galde-eskeak

Rafael Lasaga batzarkideak gela eta bulegoetako berokuntza sistemari buruz galdetu du. Gainera, eguzki-panelak jartzea proposatu du. Dekano andreak erantzun du berokuntza zentrala dela eta campus bakoitzean dagokion Campuseko Errektoreordetzak itzali eta pizten du egun jakin batzuetan. Proposamenari dagokionez, berriz ere Campuseko Errektoreordetzaren eskumenekoa dela azpimarratu du, baina estalki bakoitzeko alderdi askoren araberakoa dela.

Estitxu Garai batzarkideak masterretan euskaraz matrikulatzearen gaia aipatu du. Ikasleek hizkuntza hautatzen dutela erantzun diote.

Aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, dekanok andreak batzarra amaitutzat eman du 14:05ean, eta nik, idazkaria naizen aldetik, hori guztia egiaztatzen dut Leioan, 2022ko irailaren 28an.

O.E. Dekano andrea  
**Ana Irene Del Valle**

Idazkari akademikoa  
**Esteban Arlucea**